

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

## Pacha Mama haserre dago

**G**ure Ama Lurra edo ketxuen Pacha Mama haserre dago. Ama izanik begirunea zor diogun arren, ez dugu behar bezala zaintzen, are okerrago, zikindu, bortxatu eta zaborrez betetzen dugu, hiper-ustiatzeaz gain. Dioxidoz bete dugu atmosfera, ozono-geruzan zulo ikaragarriak eragin ditugu, basoak ere hustu ditugu... eta Ama Lurra oihuka hasi da: “Zertan ari zarete, ergelok! Ez duzue ikusten hondamendia dakarzuela zeuen buruen gainera!”.

Baina entzungor egiten dugu. Noiz arte? Zer mundu klase utzi nahi diegu gure ondorengoei? Ama Lurrak abisu latzak eman dizkigu berriki ere: Errusian izugarritzko beroak eta suteak, milaka baso eta hektarea suntsitzeraino; Pakistanen uholde beldurgarriak Leh haranean eta Sindh probintzian, hogeita milioi kaltetu baino gehiago eraginez; uholde izugarriak Txinan ere; izotz-horma edo iceberg erraldoiak askatzen Groenlandian eta Hego Poloan...

Baina horrez gain, bestelako keinuak ere egiten dizkigu naturak, bere edertasunak gure begien aurrean jarriz eta esanez: “Ikusi zeinen mundu ederra jarri dudan zuen eskuetan. Zain itzazue izaki guztiak eta zain ezazue zuen bizilekua, ama lurra”. Eta egu-



DANI BLANCO

nero hortxe ikusten ditugu tximeleta pinpirinak txiribuelbaka, alai, eder, arin. Hortxe ikusten ditugu ipurtargiak ere, beren argi magikoa barreiatuz, edota xaguxarrak ilunabarrean, milaka akrobazia eginez. Hor dabilta gure begien gozagarri sorgin-orratzak eta intsektu harrigarrienak, horien artean, kakalardo adardunak (guk Ikazte-

gietan, mokotarro deitzen ditugunak); milaka hegazti eta txori mota; gure belarrien gozagarri, kilkerak, galeperrak, itsasoko olatuen joan-etorri sorgorra, errekatxoek murmurio goxo, apala... Gure usaimena lurrin atseginez betetzeko, arrosak eta krabelinak, mendabeltz, mendafin eta mihiluak edota goizeko ihintzetan garo eta beste hainbat landare arteko paseo lasaigarriak...


Zer egin dezakegu Ama Lurra beti eder eta osasuntsu mantentzeko. Hori mundu honetako jakintsuek esan beharko digute, ikertu beharko dute, politikoetan eta jende xehe-

rengan ez baitut itxaropen handirik. Baina jakintsurik gelditzen al da oraindik? Benetako jakintsurik esan nahi dut, jakinduriaz, guztion zorionaz eta ongizateaz arduratzen den jakintsurik? Diogenes bezala “gizon” bila hasi beharko dugu, gizon jator eta zintzoen bila. Horiek, agian, salbatuko dute gure Ama Lurra, Pacha Mama. ■

«  
Baina jakintsurik gelditzen al da oraindik? Benetako jakintsurik esan nahi dut, jakinduriaz, guztion zorionaz eta ongizateaz arduratzen den jakintsurik?  
»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Denborak azalarazten ditu batzuetan. Ez beti. Mundiala bukatu ordu-

ko, ligak hasi zaizkigu. Eta Italia, Ingalaterra eta Espainiakoa zor errekak berarekin eramateko zorian daude. Hiru hauen artean Espainiakoa da okerren dagoena, azken denboraldian berrehun eta berrogeita hamar milioi euroko galerekin. Zulo hau aurreko zuloari gehitu behar zaio, hiru mila eta bostehun bat milioiko zorra metatuz. Ez da egoera hau hedabideetan azaltzen, sartzen dena baino gehiago gastatzea punta-ko kirolaren ohiko kudeaketaren jokaldizat eta normalizat hartua baitugu guztiok ere. Europako ligen artean

## Ezkutaezinak

Bundesliga jotzen da salbuespentzat, nahiz eta honek ere defizitak egiten eskarmentua baduen. Espainiako

Real Madrid eta Kataluniako F. C. Barcelona omen dira jokalaria kontratatzen gehien gastatzen dutenak. Izan ere, bi horietan bazkideak dira presidenteak hautatzen dituztenak, eta nola ez, publizitate kanpaina azkarrenak izarren erakartzea behar du zutabe, kosta ahala kosta. Zorra zorraren gainean, gaitzerdi ligak eta gainerakoak irabazten baldin badira tamainako desastre finantzieroa zelaiek estaltzen baitu. Eta beti dago instituzio publikoren batean politikoren bat hortaz baliatuz bere arrakasta gu guztion sakelatik ordaintzeko prest egoten dena. ■